

**XVII EDICIÓN**



**“Café Bar Bilbao”**

**Teatro Laburreko Saria**  
**Premio Teatro Breve**

Goiatz Labandibar  
**SALAKETA**

2019

# **SALAKETA**

**GOIATZ LABANDIBAR**

Pertsonaiak:

BULEGARIA (A)

ERABILTZAILEA (B)

*Erdi ilunpetan dagoen eszenatokiaren erdian mahai bat dago jarrita. Mahai horretan, publikoari zeharka begira, pertsona bat dago eserita. Parean, idazmakina bat dauka, garai bateko Olivetti horietako bat. Idazten ari da. Soinua ateratzen dute teklek (klak-klak-klak). Mahai-gain horretan, karpeta mordoa eta paperak daude. Boligrafoz eta arkatzez betetako kaxa bat. Kafe kikara bat. Bulego bateko ohiko mahai bat da. Atzeko aldean, artxibo-armairu batzuk daude. Bulego soil bat da. Hotza. Burokratiko.*

*Argiztatu egin da mahaia eta mahaikoa. Mahaian eserita dagoena noizbait dotoreak izan baino dotorezia galdu duten bulegari arropoz jantzita dago.*

BULEGARIA (A)- Hurrengoa!

*Pertsona bat sartu da, publikoaren artetik azaldu da eszenatokira. Aterkia zabaldua uzten du lurrean, lehortzeko moduan. Eta bulegariaren parean hutsik dagoen aulkian esertzen da, bi hankak estuturik eta bi eskuak, belaun gainetan.*

A – Esaidazu.

ERABILTZAILEA (B) – Kereila bat jartzera nator.

A- Kereila bat idatziz epailearen esku jartzen den deklarazio bat da, ustezko delitu baten berri emateko. Kereila zeuk idatzi behar duzu, eta ez nik. Hori ez dagokit niri.

B- Funtzionarioa, ezta?

A-Langile publikoa. (*Eten txiki bat*). Baina, honaino etortzeko eta itxaroten egoteko lana hartu duzunez, eta nahiz eta baditudan momentu honetan bertan egiteko

garrantzitsuagoak, funtzio publikoko langileen ospe txarrari aurre egiteko, prest nago zu laguntzeko.

B- Kereila idazten lagunduko didazu?

A-Ez, kereila ez. Kereila zeuk idatzi behar duzu.

B- Ez dut ulertzen...

A- *(Buruz ikasia duen testua, behin eta berriz errepikatzen dagoenaren erritmo azkarrean, ia entzulearentzako era ulertezinean azalpena ematen hasten da)*

Kereila bat pertsona batek ustezko delitu baten berri epaileari idatziz helarazten dion deklarazio bat da. Horrela, eskatzaileak kausa kriminal bati hasiera emateko eskatzen du, ustezko delitua aztertzeko, eta akusazio partikular bihurtzen da. Kereila bat jarri dezake edozein herritarrek, delituaren objektu izan edo ez. Deklarazioa egiten duen pertsonak esplizituki azaldu behar du prozedura judizialean parte hartzeko nahia, akusazio gisa, nahiz eta nahi duen momentuan apartatu daitekeen kasutik, ardura zibil edo penalik gabe. Epaileak edo Tribunalak erabakiko du kereila tramitera onartu edo ez. Kereilan delitu publikoak eta pribatuak denuntziatu daitezke. Delitu publikoak dira ofizioz martxan jartzen direnak eta delitu pribatuak dira objektuak salatzen dituenak: irainak eta kalumniak, adibidez. Kereila idatziz formulatu behar da eta beharrezkoa da abokatuaren eta prokuradorearen interbentzioa. Argi geratu da? *(askoz geldoago easten du azkeneko esaldi hau)*

B- Mmmm... Beraz, zer egin dezaket?

A- Denuntzia bat tartekatu.

B- Eta zer da denuntzia bat?

A- Denuntzia bat justizia administrazioa ustezko delitu baten jakinaren gainean

jartzea da. Denuntzia bat heltzen zaionean, justizia organoek ustezko delitua aztertzeko betebeharra daukate. Salatzailleak ezin du ezer eskatu, soilik narrazio bat egiten du, bere ustez delitu izan daitekeen zerbaiten berri emateko. Delitu bat ikusten duen edozein herritar behartuta dago horren berri ematera justizia administrazioari. Denuntziatzea herritarren betebeharra da. Delitu baten berri izan eta jakinarazpenik ez egitea bera delitua da: ondorio penalak izan ditzazke. Era berean, denuntziatzea herritarren eskubidea ere bada: kaltetua denak eskubidea du erreparazioa eskatzeko. *(Erritmo azkar berean kontatu dhorri dena)*. *(Motelduz)* Argi geratu da?

B- Uste dut baietz *(duda-mudako ahotsez)*.

A- Nahi baduzu, epaitegi honetako langile naizenez, zuk diktatu eta nik makinara traskribatuko dut egin nahi duzun denuntzia *(eten txikia berriz)*. Hala ere, alde zuretik ongi pentsatzea nahi nuke ea denuntziatu nahi duzun ustezko delitua benetan den delitu. Funtzio publikoko langileok laguntzeko baikaude, baina ez denbora galtzeko. Guk denbora galtzeak esan nahi baitu diru publikoa xahutzea, alferrikako burokrazia elikatzea eta iraunkortasunaren ikuspegitik ere, ez da zilegi: izan ere, administrazio publiko honek sinatua du paperaren erabilera murrizteko Fukuokako 2036ko protokoloa. Beraz, izan zaitez hiritar arduratsua, eta ongi pentsatu.

*(Isilik, bulegariari begira-begira dago iritsi berria. Harri eta zur)*.

A- Hurrei bezala, minutu bat utziko dizut pentsatzeko. *(Eskumuterreko erlojuari begiratzen dio eta denbora kontatzen hasten da. A eta B elkarri begira-begira geratu dira. Isiltasuna absolutua da)*. Pentsatu duzu?

B- Bai.

A- Bai, zer?

B- Baietz.

A- Baietz, pentsatu duzula?

B- Bai.

A- Bai?

B- Bai! (*Ahotsa altxatzen du, haserretzen hasita*).

A- Bai... edo ez?

B- Baietz ba!

A- Bai. Eta zer pentsatu duzu?

B- Baietz!

A- Baietz, zer?

(*B aulkitik altxatzen da, haserre erabat*).

A- Lasai, lasai, hiritar zintzo hori. Ez da horrela jartzeko ere! Hau froga bat besterik ez zen! Izan ere, burokrasia motela da. Are gehiago epaitegietakoa. Simulakro bat besterik ez da izan, ulertu dezazun denuntzia jartzen baduzu zer pasatuko den: behin eta berriz erantzun beharko dituzu galdera berdinak, motel joango da prozesua, frustratu egingo zara, haserretu, dena popatik hartzera bidaltzeko gogoia izango duzu behin baino gehiagotan... Gaurko froga hau gaitzen baduzu, denuntzia jartzea gomendatuko nizuke. Baina zure erreakzioa zein izan den ikusita... Ez dakit ba nik... (*Etena*). Ziur zaude denuntzia jarri nahi duzula?

B- Bai, ziur nago.

A- Ongi pentsatu duzu?

B- Bai, ongi pentsatu dut.

A- Ados ba. Has gaitzen.

*(B aulkian eroso jezartzen saiatzen da).*

B- Ba begira, denuntzia jarri nahi dut zeren...

A- Et, et, et... Lasai! Poliki! Lehenengo denuntzia jartzeko formularioa topatu behar dut! *(Mahai gaineko karpeten eta paper desordenatuen artean bilaka hasten da; bere buruarekin ari da hizketan, marmar batean).* Ez, ez... hau ere ez... hemen ez, hau ez... ez, ez... kereilak, dibortzioak, isunak... *(B ezeroso mugitzen da aulkian. A-k bere baitan hizketan jarraitzen du)* puf... demontre... ui, hara, 1899/2011 sententziaren alegazio eskaera... ba, hau dagoeneko preskribatu da... Eskerrak ez duten jakingo nire mahaian traspapelatu zela... *(B mahai gainean eskuineko eskuko lau hatz dantzatzen hasi da, pazientzia agortzen ari zaiola adierazteko edo. Baina A-k berean jarraitzen du).* Hemen! *(Oihu egiten du triumfalki).* Desorden ordenatuaren magia! *(Irribarre egiten dio B-ri, eta begia klixkatu, oso nabarmenki, publikoak ere hala egin diola igarri dezan).*

B- Funtzionarioa izan behar... *(marmarrean).* Beno, ba esaten hasi naizena...

A- Itxoin itxoin! Hemen, hasieran, galderak nik egiten ditut. *(Etena).* Hasiko naiz bada: nortasun zenbakia.

B- Nortasun zenbakia?

A- Bai. Datuen Babeserako Legea, badakizu...

B-98.910.273-S.

A- Lanbidea?

B- Irakaslea.

A- Funtzionarioa?

B- Ez. Langile publikoa.

A- Ados. Funtzionarioen artean lan egiten duen gremio bakarra *(ironikoki)*... Beste

guztiok alfer hutsak gara, baina oiiri irakasleak...

B- Hurrengo galdera?

A- Adina?

B- Hori erantzutea premiazkoa al da?

A- Galdetu egin behar dut... Zenbat urte dauzkazu?

B- Zenbat uste duzu?

A- Ez dakit ba... Ongi kontserbatu plantak dituzu, baina batek daki, hemen dena izan daiteke itxuraz kontrakoa eta. Gainera, dauzkazunak baino gehiago esango banizu, gaizki hartuko zenuke, eta daukazunak baino gutxiago esanez gero, berriz, harrotu egingo zinateke. Ez dut arriskatu nahi ez batera eta ez bestera... Ez badidazu zure adina esan nahi, hutsik utziko dut laukitxoak, baina akaso horrek ondorengo pausoak motelduko ditu, eta denuntzia hau tramitera onartu behar duen justiziako langile publikoak tramitea berrikotik hasteko eskatu dezake. Nik, zu banintz, adina esango nuke (*Aulkitik altxatzen da, eta B-ri berarengana hurbiltzeko keinua egiten dio eskuarekin. Mahaiaren gainean elkartzen dira biak, publikoari begira, A-k eskua jartzen du B-ren belarrian, eta esaten dio*): Ez du gehiegi axola bizpahiru urte gutxiago dituzula esaten baduzu, adin nagusikoen arteko kontu bat bada bederen... (*Bere tokira itzultzen da. Gauza bera egiten du B-k*). Beraz: adina?

B- Jarri 39.

A- Ados. 39. (*Begiratu egiten dio*). Uste baino hobeto kontserbatzen zara, bai.

B- Mila esker.

A- Ofizioz, irakasle, esan didazu.

B- Bai.

A- Zer irakasten duzu?



B- Beno... tira... ahal dudana... Egia esan, denbora bat daramat bajaran.

A- Estresa? Lunbagoa? Bizkarreko gainkarga? Otitisa?

B- Beharrezkoa al da bajaren zergatia zehaztea denuntzia bat jartzeko orduan?

A- Ez. Hori ez da denuntziarako. Jakinmina da. Gure arteko harremana

humanoagoa egiteko. Bestela, hain dira grisak bulego hauek... Justizia mediokre baten atari gisa, asmatu zuten dekoratzaileek, baina tira... Nik sinesten dut gizakiok animalia sozialak garena, eta gustatzen zait nire zerbitzuen erabiltzaileekin intimitate pixka bat edukitzea, hartara, gehiago enpatizatzen dut beraiekin eta denuntziak hobeto erredaktatzen ditudala iruditzen zait. Sinesgarriago. Eta, egidazu kasu, oso garrantzitsua da lehenengo instantzian hartzen den deklarazioaren tonuarekin, hitzekin eta erregistroarekin asmatzea. Maiz, horren arabera egiten du aurrera denuntzia batek edo artxibatuta geratzen da (*buelta ematen du eta artxibo-armairuak seinalatzen ditu*), horrelako armairu triste batean.

B- Ados. Baina belarrira esango dizut... (*Aulkitik altxatu dira biak, eta mahai gainera hurbildu, lehentxeago bezala. Aurpegiak ikuslegoaren aldera begira daude. Belarrira zerbait xuxurlatu dio B-k, ikusleek ez entzuteko moduan. Barrez lehertzen atzeratu da A, txaloak joaz*).

A- Kar-kar-kar! Ederra ziria sartu diezuna Lan Inspekziokoei! Uste nuen dena ikusita nuela, baina ez... Beraz... Lagun min bat Lan Inspekzioko telefono deiak egiten dituen duzu, eta zure fitxa heltzen zaion bakoitzean, zerrendaren bukaerara bidaltzen zaitu, dagoeneko deitu izan balizute bezala! Kar-kar-kar! Sekulako tranpa da... Aspaldian entzun dudana onena! Ez nuen behin ere pentsatuko telefonista batek halako boterea izan zezakeenik...

B- Aizu, errespetua eskatzen dizut. Eta diskrezioa!

A- Barkatu, barkatu... Bai, nire erreakzioa ez da batere profesionala izan (*Idazteko makinaren aurrean serio jarri da, hatzak hizkien gainean kokatu, eta serio-serio hasi da galdezka*). Goazen bada, harira.

B- Bazen garaia...! (*Besoak gora altxata*)

A- Beraz, denuntzia bat jarri nahi duzu. Nor da akusatua?

B- Antton Oilarburu.

A- Igarlea?

B- Berau.

A- Zer dela eta?

B- Engainatu egin nau.

A. Engainatu?

B-Bai. Engainatu.

A- Zein engainu mota izan da? Publizitate engainagarria, erregulatu gabeko negozioa, konpetentzia desleiala...?

B- Ez da bete berak iragarri zidana.

A- Eta hori zein engainu mota dela esango zenuke? Nik ez nuke esango publizitate engainagarria denik, ez baitut sekula aditu Antton Oilarburu berak esaten dena betetzen denik oilartzen, beti esan izan du etorkizunaren interpretea eta iraganarekiko zubia dela bera. Erregulatu gabeko negozioa denik ere ez nuke esango, izatez, nigromanteena hala baita, baina Antton Oilarburuk Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak fin eguneratuak dituela ondotxo dakit. Konpetentzia desleiala denik ere ez nuke esango, merkatuko igarlerik garestiena da eta, bere tarifak gainerakoen gainetik daude.

B- Nola dakizu zuk hainbeste Antton Oilarbururi buruz?

A- Funtzio publikoa, *my friend (berriz begia klixkatu dio)*. Beraz... zein delituren egiletzat denuntziatu nahi duzu Antton Oilarburu igarle sonatua?

B- Iruzurra. Iruzurgile hutsa da.

A- Iruzurra hitz potoloa da...

B- Egia da. Errealitatea. Objektiboa.

A- Ui, ui, ui... Egia... errealitatea... objektibotasuna... Kontzeptu potoloetara ari gara hurbiltzen... Begira, konfiantzan, gauza bat esango dizut: denuntziako lehenengo instantzian halako hitz potolo eta filosofikoek ez dute deustarako balio. *Egia, errealitatea, objektibotasuna* hiruko hori idatzita daukan denuntzia bat jasotzen duen edozein langile publikok, zuzenean artxibatu egingo du. Hau ez da Sorbona. Epaileak ez dira Nietzsche eta Schopenhauer.

B- Beraz, zer egin behar dut? Zein da zure gomendioa, justizia administrazioko langile publiko zaren aldetik?

A- Hitz soilak.

B- Hitz soilak?

A- Bai. Hitz soilak. Arruntak. Lauak. Horiek erabili.

B- *Egia* eta *errealitatea* ez al dira hitz arruntak?

A- Bai, hitz arruntak dira morfologikoki, baina atzean erantsita daukaten iruditeria konplexua da. *Semiotika* deitzen zaion hori.

B- Ba ez dakit zein hitz erabili, orduan...

A- Ea, ba, lagunduko dizut, horretarako nago hemen eta (*tente eseri, Olivettia zuzen jarri eta hatzak teklatuaren gainean pausatzen ditu, airean*). Kontaidazu Antton Oilarbururekin gertatu zaizuna, lagun bati kontaktuko bazenio bezala. Epaileak hezur-haragizkoak dira. Eurek ere badituzte euren *feeling*-ak eta euren

filiak. Euren sinesmenak eta euren konbikzioak. Euren idealak eta euren kontraesanak. Haiengana heltzeko modurik onena, gu gauden fase honetan bederen, gauzak sotil kontatzea da, tonu etxekoian. Epaileari emozioa eragin behar dio zure narrazioak: pena eman behar diozu, errabia sentitu behar du Antton Oilarbururen kontra, zigorra merezi duela sinetsarazi behar diozu...

B- Nik ez dut Antton Oilarburu kartzelara bidali nahi. Nik, kobratu zizkidan 200 euroak berreskuratu nahi ditut. Eta beste inor ez dezala kaltetu. Ez besterik.

A- Finean, kalteordain bat zuretzako eta Antton Oilarburu lanerako ezgaitzea eskatzen duzu...

B- Bai, hori da.

A- Baina hori ez dagokizu zuri eskatzea. Eskaerak abokatuak edo fiskalak egiten ditu. Ez salatzaileak. Abokatuak eta fiskalak, legedia aztertuz, salatzaileak egozten duen balizko delitua aztertzen dute eta horri zein zigor dagokion neurtzen dute, neurritasunez eta arduraz.

B- Nik ordaindu nituen 200 euroak bueltatzea nahi dut.

A- Ez zaitetz tematu 200 euro txarrekin. Langile publikoa zara. Irakaslea. Ez duzu soldata kaxkarra izango... Izango dira zu baino okerrago kobratzen duten hamaika...

B- Hori ez da kuestioa. Ez naiz hona etorri nire soldatari buruz hitz egitera eta ni baino hobeto edo okerrago zeintzuk bizi diren konparatzera. Ni, Antton Oilarburu iruzurgile horri salaketa jartzera etorri naiz.

A- Ados, ados... Entenditu dut. Ea zuk ere entenditu nauzun... Zer jarriko dut denuntzian? Zer gertatu zaizu Antton Oilarbururekin?

B- Puff... Ez da erraza nondik hasi erabakitzea...

A- Has gaitezen hasieratik. Noiz joan zinen Antton Oilarbururen kontsultara eta

zergatik?

B- Duela bi urte, hiru hilabete eta 11 egun joan nintzen. Zehatz-mehatz. Ongi gogoan dut eguna.

*(A-k idazmakinan erredaktatzen du, ustez, B-k esandakoa. Idazten ari den neurrian, altuan irakurtzen du).*

A- 98.910.273-S NAN-dun lagunak, ofizioz irakaslea (bajan momentu honetan) eta 39 urtekoak, Antton Oilarburu igarlearen kontrako denuntzia jarri nahi du. Horretarako, justizia administrazioko bulego honetara etorri da. Salatzailleak adierazi duenez, duela bi urte, hiru hilabete eta 11 egun zehatz joan zen Antton Oilarbururen kontsultara. *(B-ri begiratzen dio):* Zuzena da orain arte idatzi dudana?

B- Kendu dezakezu bajan nagoela?

A- Uste dut egokia dela jartzea, horrek dramatismoa gehitzen dio denuntziari. Emozioak eragin behar dituzu, ez ahaztu.

B- Orduan, zuzena da.

A- Has gaitezen bada mamia lantzen...

B- Aleluia! *(eskuak gora altxatuz)*

A- Barkatu... *(Mindua denaren ahots doinuz)*, zer esan nahi duzu aleluia horrekin?

B- Bazela garaia!

A- Zertarako? *(Mesfidantzarekin galdetzen du, eta geldi-geldirik dago, hatzak Olivettiaren letren gainean pausatuta).*

B- Gaiari heltzeko, lanean hasteko...

A- Alferra deitzen ari al nauzu?

B- Mmmm... Bai, edo ez... ez dakit... Funtzionarioa zara, ezta?

A- Bai... Joño-joño... Zu bezala, ezta?

B- Ni irakaslea naiz.

A- Baina funtzionarioa. Baja luzatzen ari dena tranpak eginez... Barka, baina ni egunero etortzen naiz bulego honetara eta nire egitekoak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz.

B- Barkatu, barkatu... Ez zintudan mindu nahi.

A- Ba lortu duzu.

*(Isiltasunak hartu du aretoa segundo batzuetan, eta tentsioa sumatzen da bi pertsonaien aurpegi eta posturetan).*

B- Honek eraginik izango al du nire denuntzian?

A- Zer esan nahi duzu?

B- Alegia, oraindik prest zaude ni laguntzeko? Enpatia, hurbiltasuna, emozioak... horiek guztiak?

A- Ez dakit merezi duzun... Baina tira, nire funtzio publikoa ahalik eta ondoen betetzen saiatzeko nago hemen. Ohituta nago mespretxuetara. Halakoetan, ederki asko ulertzen dut Franz Kafka...

B- Hara, ez nekien literaturzalea zinenik.

A- Eta ez duzu jakin beharrik. Hemen, ni naiz galdetzen duena eta zu kontatzen duena. Zuk egin behar duzu literatura, eta nik literatura horri testu zientifiko itxura eman behar diot.

B- Eskerrik asko.

A- Ea bada. Esan didazu noiz joan zinen Antton Oilarbururen kontsultara. Orain, zein arrazoik eraman zintuen hara kontatzea nahi dut.

B- Bueno... Zein gizakik ez du etorkizuna ezagutzeko irrika? Galdera metafisikoak

eginez pasatzen dugu bizitza: nor naiz, nondik nator, nora noa...? Baina galdera horiek ezin ditugu erantzun. Bi bide baino ez daude horretarako: psikologoaren kabinetea edo igarleena.

A- Eta zergatik jo zenuen igarlearengana?

B- Ba psikologoaren atea jo nituelako. Eta ez zidatelako erantzunik eman.

A- Ea bada... Beraz, zure borondatez joan zinen Antton Oilarbururen kontsultara?

B- Bai.

A- Ez zintuen inork behartu?

B- Ez.

A- Ez da erraza izango hori erredaktatzea... (*idazten hasten da, eta altuan irakurtzen*) "Psikologoetan ibili ondoren, bere kezka metafisikoen erantzun bila igarle batengana jotzea erabaki zuen, bere borondatez". Horrek ez du inongo epailerik komentzituko...

B- Denboraldi horretan Antton Oilarburu toki guztietan agertzen zen: irrati publikoan gauero hamabost minutuko tartea irekitzen zuten nahi zuenak telefonoz deitzeko. Ehunka aldiz deitu nuen, baina beeti komunikatzen ematen zuen telefono lineak. Mundu guztiak nahi zuen Antton Oilarburuk zerbait igar ziezaion...! Aldizkarietan elkarrizketak egiten zizkioten, telebistan erreportajeak, dokumental labur ere grabatu zuten bere ibilbidearekin...

A- Zer esan nahi duzu, nolabait kanpo eragin horrek bideratu zintuela berarengana?

B- Mmmm, bai, izan liteke.

A- Beraz, azken esaldia aldatzen badut, konforme izango zara? Alegia:

“Psikologoetan ibili ondoren, bere kezka metafisikoen erantzun bila igarle batengana jotzea erabaki zuen. Masa komunikabideek Antton Oilarbururi eman zioten publizitate alimalekoak sinetsarazi zion gizon hori izango zela bere kezka argituko zituen pertsona”.

B- Egia esan, ez da zilegi komunikabide publikoek iruzurgileak publizitatzea...

A- Hori ez da gaurko denuntziaren gaia, ezta? Edo denuntzia honekin bukatu ondoren, beste bat jarri nahi al duzu?

B- Ez, ez. Batekin nahikoa izango da. Gaurkoz.

A- Ados zaude erredaktatu dudanarekin?

B- Ez dakit. Ez da erabat argi geratu komunikabideek nigan sortu zuten eragina...

Nahi nuke hori pixka bat gehiago espezifikatuko bazenu.

A- “Masa komunikabideek Antton Oilarbururi eman zioten publizitate alimalekoak Antton Oilarburu igarlearekiko bere pertzepzioa baldintzatu zuen, haren kontsultara joatea eraginez”. Horrela ongi?

B- Bai, askoz hobeto.

A- Ados. Kontaidazu orain kontsultan gertatu zena...

B- Kartak bota zizkidan Antton Oilarburuk, nire etorkizuna nolakoa izango zen igartzeko.

A- Galdera zehatzik egin zenion?

B- Ez, orokorra izan zen kontsultaren zioa.

A- Eta zer esan zizun?

B- Hori konfidentziala da.

A- Bada, orduan, jai dugu. Ez badidazu kontaktzen zer iragarri zizun Antton



Oilarburuk, ezingo dut frogatu, edo bederen, azaldu, zertan egin dizun iruzur. Zer ez duen asmatu eta zerk eragin dizun halako kalte emozionala.

B- Eta ekonomikoa.

A- Begira (*zuzen-zuzen eta serio begiratzen dio B-ri*): Hemen gauza serioei buruz aritzen gara. Justizia administrazioa zuzenbide estatuaren zutabe nagusia da. Zer diot bada? Edozein gizarte-eraketaren zutabe nagusia da justizia! Gizarte denek sortu izan dute eta sortzen dute justiziaren kontzeptua: Justizia arautzen dute demokraziek, teknokraziek, diktadorek, monarkiek eta errepublikek. Justizia arautzen zuten antzinako grekoek, egipziarrek eta mesopotamiarrek. Gizarte bakoitzak erabakitzen du zer den justua eta zer ez, hori hala da, baina guztietan da justua denaren eta ez denaren zentzu bat. Subjektiboa, ados. Oso subjektiboa, ados. Baina horixe da dagoena. Eta gu -zu eta ni tartean-, bizi garen gizarte honek ere badu justiziaren zentzua, eta arautu egin du, eta tokiak sortu ditu justizia egin dadin. Edo injustizia. Eta bulego hau, hain grisa eta hain aspergarria dirudien bulego hau, justizia edo injustizia egiteko gure gizarteak prestatu, adostu eta onartu duen toki horietako bat da. Beraz, hau da dagoena. Eta zuk, justizia eske bazatoz, bi aukera dituzu (*Etenaldi solemne bate gin du. Hatz bat jaso du teatralki, berriz hizketan hasi aurretik*): Bat, eserita zauden aulki horretatik altxa eta martxa egin. (*Berriz etenaldia eta bigarren hatza jaso du, are teatralkiago*). Bi: Antton Oilarburuk esan zizuna kontatu. Zuk erabaki.

(*Zalantzati begiratzen dio B-k, eskua mahai gainean jarri eta altxatzen hasteko keinua egiten*).

A- Minutu bat utziko dizut pentsatzeko (*berriz begiratzen dio eskumuterreko*

*erlojuari eta paper artean begira eta ordenatzen hasten da, B bere aurrean eserita ez balego bezala. Hau duda-mudatan dago, altxa ez altxa. Minutua pasatutakoan...).*

A- Eta, zer erabaki duzu?

*(Altxatu egin da B, baina geldirik dago, A-ri begira. Hau Olivettitik papera kentzen hastekotan da, eskuineko aldeko erruletaren gainean jarri baitu eskua).*

B- Ados. Ez badago beste erremediorik, kontatuko dut...

A- Orria kentzera nindoan...

B- Ez kendu. Kontatuko dut dena.

A- Den-dena?

B- Den-dena.

A- Dena egia?

B- Dena egia.

A- Egia dena?

B- Bai: egia dena. Ez gezurra.

A- Ea bada. Jarrai dezakegu orduan. Zein izan da egin dizudan azkeneko galdera?

B- Zer esan zidan Antton Oilarburuk.

A- Egia. Hori da: zer esan zizun, bada, Antton Oilarburuk bere kontsultara zure borondate propioz joan zinen egun hartan?

B- Esan zidan bi haur izango nituela.

A- Eta? Antzua zara?

B- Ez, ez naiz antzua.

A- Zertan ez du asmatu?

B- Esan zidanez bi haur izango nituela, bizitza osoa pasatu dut seme-

alabarik izan gabe. Bi haur izateak esan nahiko luke heriotzarako prest nengokeela. Ez zidan beste erreferentziarik eman, nire heriotza zehaztuko lukeen beste daturik. Horixe esan zidan: bi haurren guraso izango zara. Beraz, nik erabaki nuen sekula bi haur ez izatea, hartara nire bizitza luzatzen ari nintzelakoan.

A- Itxoin, itxoin... Nola nahi duzu nik hori erredaktatzea? Barkatuko didazu, baina sekula entzun dudan paranoiarik handienetako bat da...

B- Zergatik? Lehen esan didazu literaturzalea zarela, ezta?

A- Bai. Zer ikusteko du horrek?

B- Aditua izango duzu Clarice Lispectorren izena...

A- Bai, idazle brasildar hura... Ederretan ederrena...

B- Bai.

A- Eta?

B-Bada, Clarice Lispector ia egunero joaten zen kartak bota ziezaizkion igarle batengana. Adikzio hori zeukan. Heriotzarekin obsesionatuta zegoen Lispector, eta behin eta berriz galdetzen zion igarleari ea noiz hilko zen. Noiz hilko zen ez zion inork esaten, baina igarleak esan zion nola ez zen hilko: ez zen hegazkin istripu batean izango. Horregatik, lasai hartzen zituen hegazkinak eta hegaldi nahasietan nahasiena izanagatik, ez zen izutzen, bazekielako ez zela han hilko.

A- Eta?

B- Bada gauza bera da niri gertatu zaidana. Igarle batengana joaten garenean, inork galdetzen ez badu ere, denok jakin nahi dugu noiz hilko garen eta nola. Hori da humanitatearen galdera existentzial handiena: zer da heriotza? Zer dago heriotzaren ondotik? Humano bakoitzak galdera existentzial hori bere bakartasunera estrapolatzen du. Estrapolatuta, hauek dira denok, heriotzaren kontzientzia

hartzeko adinera heltzen garenetik, bakarka gaudenean gure buruari egiten dizkiogun galderak: Noiz hilko naiz? Nola hilko naiz?

A- Berriz ere filosofiara joan zara... Hasieratik bertatik esan dizut epaileak ez direla Nietzsche eta Schopenhauer. Eta ni ere ez naiz Platon edo Hipatia. Harira.

B- Bada Clarice Lispector hegazkinetara lasai igotzen zen bezalatsu, bazekielako ez zela hura bere heriotzaren tokia, ni ere lasai bizi nintzen ez nintzelako bi haurren guraso, beraz, ezin nintzelako hilko.

A- Eta zer gertatu da egoera hori aldatzeko?

B- Minbizia diagnostikatu didate.

A- Baina hori ez da bajaren arrazoia, ezta?

B- Ez, lehendik nago bajan. Ikasturte hasieran hartu nuen, haurrak egun osoz eskolan hasi zirenean.

A- Minbiziaren artapenean medikuntza asko ari da aurreratzen azken urteetan... Minbizia diagnostikatu izanak ez du esan nahi epe motzean hilko zarenik.

B- Bai. Medikuek sei hilabete eta urtebete arteko bizi-itxaropena dudala esan didate. Hori da egia. Dena.

*(Isiltasuna egin da bulegoan. Biak daude isilik, geldirik, bata besteari begira-begira).*

B-Ez al duzu erredaktatu behar?

A- A, bai, bai *(Zurruntasunetik atera eta airean hatzak idazteko posizioan jartzen ditu, teklaturtik urruti xamar).*

B- Nahi duzu nik idaztea?

A- Bai, agian hobeto izango da *(biak eserita dauden aulkietatik altxatzen dira eta tokiak trukutzen dituzte: A erabiltzailearen aulkian esertzen da, B Olivettiaren parean).* Ongi ematen dizu justizia administrazioko langile publikoaren tokiak...

B- Mila esker. Zu ere imajinatzen zaitut Filosofiako irakasle...

A- Filosofiako irakasle zara?

B- Bai.

A- Orain ulertzen ditut zenbait gauza.

*(B idazten hasi da. Ez dakigu zer idazten duen, baina kontzentratua dago Olivettiaren aurrean).*

A- Aizu, denunziaren bukaeran gehitu ezazu nire izena ere. Antton

Oilarbururengana joan nintzen ni ere behin eta iragarri zidan lagun baten urtebetetze festa batean ezagutuko nuela nire bizitzako maitasuna. Inguruko urtebetetze festa guztietara joan naiz ordutik: lagun, ezagun, bizilagun, iloba, lankide, umetako gelakideak... Direnak eta ez direnak egin ditut ahalik eta urtebetetze festa gehinetara gonbidatu ziezadaten... Probatu ditut milaka pastela, eta dirutza gastatu dut oparietan. Eta alferrik. Ez nau inork maitemindu. Ez dut inork maitemindu.

B- Iruzurgile hutsa da Antton Oilarburu.

A- Bai, iruzurgile hutsa da.

*(B-k Olivettian idazten jarraitzen du, taka-taka-taka, entzuten da teklen hotsa. Halako batean, denunziaren papera ateratzen du errodillotik. Sinatu egiten du mahaitik hartutako boligrafo batekin. Gero, A-ri luzatzen dio orria eta hark ere sinatu egiten du).*

A- Beraz, Clarice Lispector igarleen drogatiko bat zen?

B- Bai.

A- Hara... *(Aulkitik altxatzen da A, eta atera egiten da oholtzatik, gelatik).*

*Olivettiaren aurrean eserita geratzen da B, eta mahai gaina txukuntzen eta ordenatzen hasten da, betidanik hura bere lana eta egitekoa balitza bezala. Paperak inbertituta. Eta argiak itzaltzen dira...)*

BUKAERA